

14KO GERLAKO KANTUAK

[Martin Irabola "Matxin"](#)

(Senpere, Lapurdi, 1879-1935)

I

Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen / Gizonaren bizia zer gisatan den / Egia ez da erraz xuxen esplikatzen / Anitz justizia baitute ezagutzen (1) / Gu penaz hingatzen / Elkarren [xahutzen](#) / Bat bertzea hiltzen / Odola isurtzen / Bertze anitz urrundik irriz asetzen.(2)

II

Hemeretzi ehun eta hamalagarrena / Agorrako hilaren lehen eguna / Europako gerla bat deklaratu zena / Frantzia azkar ginen bazela zuzena / Legeak emana / Denentzat berdina / Zerbitzuko on zena / Biltzeko ordena / Baina eskapatzen da diru duena.

III

Partitu ginen beraz denak (3) herritik / Gure familietan penak utzirik / Haur tiki zenbaitekin andreak bakarrik / Gizonak penatuak, hor ez da dudarik / Orduz geroztik / Dabilena xutik / Zerbait ikusten dik / Penaren partetik / Hilak bere kontuak eginak ditik.

IV

Zenbait gizon alferren kapritxoagatik / Jende miserableak hor pekatzen ditik / Anitzek ez diagu [ardit](#) baten lurrik / Bertzerenaren ontzen gabiltzak bakarrik / Aberatsetarik / Anitzak segurik / Urrun dituk sutik / Diruarengatik (4) / Gu hemen hiltzen horien [manuengatik](#).

V

Izpiritu duenak erraz du pentsatzen / Gure diferentzia zenbatekoa den / Handiak ari dira ttikiak manatzen / Pobrearen indarrez [galoiez](#) altxatzen / Ohorez handitzen / [Mirailez](#) beztitzen / Diruaren biltzen / Interesen [doblatzen](#) / Gu horien manutik elkarren hiltzen.

VI

Gerla honetan parte izan duenak / Segur ezagutzen dik zer dituen penak / Gogoan baitituzte aita-amen grinak / Bertze zenbaitek aldiz andre eta haurrenak / Lagun baduenak / Berak ere lanak / Gau eta egunak / Arriskuan denak / Zer konta behar likek hiltzen ez denak.

VII

Zenbat amaren seme dolorez haziak / Hemen uzten dituzte gaixoek biziak / Inorantzia batez honat etorriak / Hekien plazak dira negarregingarriak / [Orobat](#) erdiak / Beltzez estaliak / Odolez beteak / Inozent tristeak / Zenbait alferrengatik horiek guziak.

VIII

Etsenplu har dezagun zentzuan garenak / Ikusirik munduan diren [xangrinak](#) /
Umilia gaitezen Jainkoari denak / Ofrezituz gu baitan diren bihotz-minak / Hemen gaizki
eginak / Bai justu direnak / Plazer eta penak / Pasatzen ditugunak / Jainkoak jujaturen
ditik horiek denak.

SARRIUGARTE, Iñaki (2010). «Matxin Irabola, Sorbonan sarri aipatutako bertsolaria»,
Karmel 271: 30-33.

-
- (1) Henri Duhauk argitaratutako sortan: *Anitzen justizia ez dut ezagutzen*.
 - (2) Duhauren sortan: *Aberatsak urrundik irriz asetzen*.
 - (3) Duhauren sortan: *guziak*. Metrikari dagokionez, egokiagoa.
 - (4) Duhauren sortan: *Beldurrarengatik*.